

GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA (MEDIKUNTZA) LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA. 2019ko OTSAILAREN 1eko GERENTEAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

ARIKETA BAKARRA: DATA ETA LEKUA.

Deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2019ko otsailaren 1eko erabakia), Gestioko Teknikarien Eskala (Medikuntza) lan-poltza zabaltzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Hautaketa prozesuko ariketa bakarraren azterketa, deialdiko seigarren oinarriko 1. atalean aipatutakoa, 2020ko urtarrilaren 14an izango da, asteartea, arratsaldeko 15:00etan, Bilboko Ingeniaritza Eskolako 1. erakinean, lehenengo solairuko P1G3A ikasgelan (sarrera Luis Briñas kaletik, metroko igogailuaren alboan).

Deitutakoen akreditazioa eta Fakultatera sarrera 14:45etan hasiko da.

Proba egiteko Instrukzioak irakurtzeko unean ezin izango da inor sartu.

BIGARRENA.- Probaren zehaztasunak honako hauek dira: Probak bi zati ditu.

- Lehenengo atala: Aukera anitzeko erantzunak izango dituzten 100 galdera (gehi erreserbako 10) erantzun beharko dira idatziz. Ez da punturik kenduko okerreko erantzunengatik edo erantzunik gabeko galderengatik. Atal honen iraupena 120 minutuko izango da eta gehienez 10 puntu emango dira eta gutxienez, 0.
- Bigarren atalean (praktikoa) kasu praktiko bat egin beharko da. Ariketa praktikoaren edukia deialdiko seigarren oinarrian esandakoarekin bat etorriko da (6.1.1.2). Atal honen iraupena 60 minutuko izango da eta gehienez 10 puntu emango dira eta gutxienez, 0.

kontsultarako materiala ezin da erabili.

Proba osoa gainditzeko 10 puntu gutxienez atera behar da, deialdiaren 5.8. oinarrian esandaakoa kontutan hartuz.

Ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dira desgaitasuna duten eta hirugarren oinarrian zehaztu bezala hala eskatu duten pertsonetzat.

Gogoan izan behar da azterketara nortasun agiria (NAN), pasaportea edo gidabaimena eraman behar dela (seigarren oinarriko 6.1.5. atala). Boligrafo beltza edo urdina ere bai.

Leioa, 2019ko azaroaren 15a

Epaimahaiako idazkaria

José Manuel Ibarra Ruiz